


Astekaria

BARRREN

elgoi



MAIATZA
DANTZAN

garaje

ASTIGARRAGA

San Frantzisko, 55 Tel. 74 01 86

- * Ziklomotore eta motorren konponketa eta salmenta
- * Jonsered eta Husqvarna motoserrak
- * Desbrozadorak
- * Neumatikoak
- * Bizikletak

3 LAU HANKATAN

"Gaur egun eskola publikotzat jotzen ditugunak eskola "estatal" edo "ofizial" bezala sailkatuko nituzke" **Alberto ansuategi**.

6 ERREPORTAIA: MAIATZA DANTZAN

Maiatzeko dantza giroa herriratu nahian, Dantza eta Musika Fundazioak, Gasteizko "Traspasos" dantza konpainia ikusteko aukera eskainiko digu.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZER IRITZI DUZU MENDIKO MOTORZALEETAZ?

Jon Leiaristi: "Hobby guztiak bezala motorren mundua kirol konpetitiboa izan daiteke, baina kutsadura dela eta zenbait sektore motorraren aurka jarri dira".

Abel Irizar: "Mendian motorrak dabiltzan bitartean, ezer gutxi balio du lasaitasunak, txori kantuak eta belar usain freskoak".

14 BERBETAN

Itziar Ajuria: "Lehenengo urteak gogorak baina politak izan ziren".

16 KIROLA:

GAIA: AGUR LERUNI ETA ONGIETORRIA MINTXETARI

ELKARRIZKETA: **Jaime Martinez:** "Lurrazpia beste mundu bat da".

20 ELKARTEETATIK BUELTAN

NUMISMATIKA ETA FILATELIA ELKARTEA

21 KULTURA

HIRU LURRALDEETAKO IKASTOLEN BILERA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIAREN AZKEN ZINE EMANALDIA

TXANDAK

FARMAZIAK:

- 15, larunbata: **BIDASOLO**
- 16, igandea: **BIDASOLO**
- 17, astelehena: **YUDEGO**
- 18, asteartea: **YUDEGO**
- 19, asteazkena: **YUDEGO**
- 20, osteguna: **YUDEGO**

21, ostirala: **ORMAZABAL**

OKINDEGIAK:

- 16, igandea: **FOTERO**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC)	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547


HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldeg

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Azala
Sarasua

Administrazioa
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Agur Miren
Barandiaran, Bertso Eskola,
Lorea Gorostiaga, Hasier
Etxeberria, Maite Iriondo,
KOKOE, Imanol Larrañaga,
German Meabebasterretxea,
Susana Mugika, Jasone
Osoro, Diana Perez de
Albeniz, Lorea Perez de
Albeniz, Segundo Raigoso,
Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta, Javier Zarzuelo.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Helbidea
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
SS-1.038/92

ISSN
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN



Alberto Ansuategi

Ikastola

Bizitzaren hase-rako zikloa berdintsua izan ohi da guzientzat: gurasoen edota

familiaren babesean hazten gara, heldutasuna (finantzieroa batik bat) erdietsitakoan geure kabuz bizitzera pasatzeko. Ikastolaren bizitza zikloa, berriz, alderantzizkoa izan da: umezurtz jaio, bakarlanean hazi eta, heldutasun apur bat lortu duenean, Euskal Eskola Publikoaren legeak guraso-ordeak inposatu nahi dizkio.

Baina, a ze guraso-orde! Aitak ez du semea maite. Amak bai, ordea. Halere, komenientziatzeko ezkontza bat izan da sozialistak eta nazionalistak elkartu dituen eta, halakoetan, maitasunarentzako tokirik ez omen dago.

Nik ez dut uste eskola pribatu eta publikoen bereizketa egokia egiten ari denik. Gaur egun eskola publikotzat jotzen ditugunak eskola "estatal" edo "ofizial" bezala sailkatuko nituzke. Bestalde, ikastolak haseratik "de iure" pribatuak izan badira, ez dut uste "de facto" izaera hori dutenik.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikastolek erabaki garrantzitsu bat hartu beharko dute Maiatzaren hogeita bosterako. Baina aukerak, nire ustez, ez dira sare publikoa eta pribatua, bi herri proiektu ezberdin baizik.

Lehendabiziko proiektua aurreko udaran gauzatu zen Eskola Itunaren sinatzaileena litzateke. Euskal Herri-

ko zenbait tokitan euskararen ezagupena erraztea bilatuko lukete (norbaitzuk ezta hori ere), baina beti ere estatu zentralaren hezkuntza sistemen isladapen hutsa litzateke hauena.

Bigarren proiektuan ikastolen betebeharreri buruzko ikuspegia zabalagoa da. Euskal Herri osoan, ezagupenaz gain, euskararen erabilpena ere bultzatu beharko litzateke hauen ustetan, baina gogoan izanaz hizkuntza tresna bat dela. Ondorioz, ikastolek euskal kultura, historia eta baloreak transmititzeko gai izan beharko lukete. Euskal Herriko eskola propioaz hitzegiten ari naiz azken batean.

Halere erabakia baldintza ditzaketen milaka faktore aurki genitzake. Guzien gainetik "xantaia" ekonomikoa: sare publikora pasako liritekeen ikastolek arlo honetan abantaila nabariak izango lituzteke. Dena dela, Ikastola pribatuei 1997. erarte gainfiantziaketa bat eskaintzeko akordioaz esanek eta ez-esanek gobernuaren barnean sortu diren ezadostasunak salatzen dituzte.

Gaia korapilotsua da. Zalantza ugari dago eta arazoari buruzko informazio murrizak ezer gutxi laguntzen du aukeraketa bat egiteko. Azken hitza ikastolei dagokie, eta hau zein bestea aukeratu, ezin ezaba daitezke iraganean herriarentzako lan egindako urteak ez eta etorkizunean egin beharrekoak ere.

DEKORAZIOA



**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

**OKINDEGIA
OPILDEGIA**

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Nire Lehen Jaunartzea

Neretzat egun eder bat izaten da, Jesus gure barnean sartzen delako eta Jaunaren gorputza hartzen dugulako lehenengo aldiz. Gero, opariak ere izaten ditugu.

Jatera leku berezietara joaten gara. Ondoren tarta eder bat jaten dugu, gainean daraman panpina eta guzti.

Familiakoak elkartzen gara. Niretzat egun eder bat da eta nik atzo pasa nuen egun polit hori.

Niri ez zait gelditzen familian Jaunartze gehiago, baina ezkontzak bai.

Miren Bereziartua
Ikastola 3. maila

Irakurleei zuzendua

Aitortu beharra daukagu ez dela erraza aldizkari bat egitea. Zailagoa oraindik herri-aldizkari bat egitea. Denok gara herritarrak eta denontzako produktu bat egitea ez da, ez, erraza. Batzuk gustora irakurriko duzue baina gehienok erraz aurkituko dituzue akatsak.

Baina aurrera egiten badugu zuei esker da. Zuek ematen diozue arnasa BARRENi. Izan ere, irakurlerik gabe ez dago aldizkaririk. Zuen ideiak, zuen komentarioak eta zuen eskutitzak ezinbestekoak dira BARREN sortu berri honentzat. Ume jaio berriek bezala laguntza eta mimoak behar ditu. Eta ume guztiek bezala sarritan egingo ditu okerrak eta akatsak, baina zuzendu eta lagundu egin behar zaio. Eskerrikasko zuen laguntza eta animoengatik.

Eskutitzak izeneko sail hau zuena da. Orain arte eskutitz asko jaso ditugu baina badirudi piska bat ahaztu eta lasaitu egin zaretela. Batzuk lotsatu ere bai. Euskaraz ondo idatziko ez duzuen beldur zarete, asko eta asko. Idatzi lasai, dakizuen bezala. Zuen iritzia interesatzen zaigu eta zenbat eta gehiago idatzi, askoz hobe. Baina ez idatzi eskutitz luzeak, bestela ez da egongo tokirik denontzat eta!

Badakizue, BARREN denok egiten dugu. Zuen eskutitzak jasotzeko zain gaude. Zuen argazki, gomendio eta albisteak ere bidali. Pozik hartuko ditugu. Eta aurrez eskerrak denoi.

Erredakzioa

DIA DAS LETRAS GALLEGAS 1.993

Galizia Etxeak gure jaietara ongi etorria eman eta zuen bisita eskertu nahi du. Gure nahia ahalik eta jende gehien etortzea da eta zatozten guztiok une atsegin bat pasa dezazuela opa dizuegu.

MAIATZAK 15 LARUNBATEKO JAI EGITARUAU

10etan.- Txafliuak eta Manzaneda taldearekin Kalejira.

11etan.- Urasandi Ikastetxeko Plazan, Galiziako jakien dastaketa.

12etan.- Urasandiko ikastetxean Tuna Anduriña eta Gaiatas de Manzanedo.

4etan.- Umeen jolasak.

5etan.- Sukalde tresneria erakusketa.

6etan.- Galiziako jakien dastaketa

7etan.- Pontevedrako Orkestaren iharduna

10,30etan.- Pontevedrako Orkestra.



Galizia Etxea
Kalamua, 12. Tel. 74 10 03



Aste honetako erretratua **Anita Garatek** lagatarkoa da. Erretratuan ikus dezakezuen bezala, 1927. urteko abenduan ateratakoa dugu.

Dagoeneko bat baino gehiago hasiko zen buruari hazka. "Ez da Olentzeroren kalejira", edo, "Gabon Zaharreko azokarako prestaturiko kalejiraren traza handirik ere ez du ba!".

Lasai, ez gehiegi estutu buru alde hori! Hau ere, beste asko bezala, urteen poderioz galdu den ohitura zahar bat dugu.

Misioen egunean ateratako erretratua da begibistan duguna. Anitak esan digunez, urtero irteten omen ziren egun honetan misioetarako diru piska

bat lortzeko. Herriko haurrak kaleetan zehar ibiltzen ziren kalejiran, zein baino zein arropa xelegoarekin, diru poltsa pasatuz.

Aspaldiko ipuina bada ere, ohar zaitezte San Frantzisko kalearen sarreran ikusten diren bonbiletaz. Ez dakigu gaur beste jartzen zituzten, baina Gabonetako kaleak argitzeko ideia begibistan da ez dela oraingoa. Bukatzeko, kalejira kurioso honen buruan azaltzen zaizkigun hiru neskatxa horien izenak aipatuko dizkizuegu, ezkerretik eskumara:

Maria Oteiza, Anita Garate eta Juanita Iriondo.



Andoni Gisasola
ALBAITEKOA
 k / Barrena 16
 EIBAR Tel. 12 19 86

foto | azkue
 

 San Bartolome 26, Tel. 74 08 48

Orbea
Kafetegia
 San Frantzisko 6, Tel: 74 31 17

Maiatza dantzan

Maiatza, dantzaren nazioarteko hila da. Hilebete honetan, dantzaren arteari begira egongo dira munduko eskenatoki guztiak. Dantza giro hori herriratu nahian, Elgoibarko Dantza eta Musika Fundazioak, Gasteizko "Traspasos" dantza konpainiaren "Sisifo" lana ikusteko aukera eskainiko digu. Larunbatean, hilak 15, Kiroldegian izango da "Traspasos", gaueko 22,30etan.



↳ Traspasos taldearen "Sisifo" lanak arrakasta handia izan du.

"Traspasos" dantza konpainia 1985. urteko irailean sortu zen Gasteizen. Ordudanik, lau dantza-antzerki lan estreinatu ditu taldeak: 1989. urtean, "Iendo" izeneko lana, 1990. urtean, "Caballos al viento" izenekoa, 1991.ean "Siellas" lana eta azkenik, aurtengo martxoan, "Sisifo".

Sortu zenetik, beste-lako ekintza ugari buru-

tu ditu dantza konpainiak. "Traspasos", dantza tailerra ere bada eta, Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdiaren 40. edizioan inaugurazio eta klausura egunetako koreografiak burutu zituzten. Konpainiak antzesten dituen muntaiak eta koreografia guztiak, beraiek egindakoak dira.

"Sisifo"

Larunbat honetan,

Kiroldegian dantzatuko duten lana, Sisifo, greziar mitologiako pertsonaiaren istorioan oinarritua dago. Jainkoek, haitz bat bizkar gainean eramatera kondenatuko dute Sisifo, betirako. Gora heltzean, erori eta berriro ere gora igo beharko du haitz eta guzti. Horrela, zortzi dantzarik haitzak beste-ko pisua duen produkzio sistemaren menpe bizi-

den gizadia erreprezentatuko dute. Gizadiak ezin du eguneroko bizitzatik ihes egin eta zentzu-bilatze hori adieraziko du "Traspasos" taldeak dantzaren bidez.

Gasteizko dantza taldea osatzen duten zortzi dantzariek, gaur eguneko dantza espresiboa, taularatzen dute. "Sisifo" antzerkiaren mekanismoak barneratzen dituen dantza da. Lana-

Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40

Kopilan

FOTOKOPIAK
PLANOAK
ENKUADERNAKETAK

Ibaiarte Polig. Industriala, A-6 Tel. 74 35 51 - Fax publikoa 74 00 12

ZOBEL

KORTSETERIA, OSAGARRIAK
ETA BARRUKO ARROPA.

San Roke 13 behe. Tel: 74 34 01

ren ideia eta garapena "New Age" deitzen den musikarekin indartzen da.

Dantza atsegin duen edonork, beraz, larunbat gauen izango du zer ikusi.

Dantza Eskolaren jaialdia

"Traspasos" taldearen emanaldia, ez da hilabete honetako saio bakarra izango. Ostegunean, hilak 20, Elgoibar-ko Dantza Eskolak, kurtso bukaerako jaialdia taularatuko du Herriko Antzokian, iluntzeko 8etan.

Aurtengo jaialdia, Dantza Eskolak egiten duen bigarrena da, eta bertan eskolako haur guztiek hartuko dute parte. Aurtengo saioaren egitaraua sekretupean gorde nahi izan dute ekitaldiari ezuste tonua eman nahian. Iazko jaialdian hiru motako dantzak landu zituzten; klasikoa, herri dantzak eta dantza modernoa. Aurtengo saioak ere antzerako zatiak izango ditu seguruenik.



SARASUA

➔ Iaz, dantza eskolako haur guztiek hartu zuten parte jaialdian.

Dantza eskolako haurrek ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsiko dute jaialdian.

Dantza Eskola

Aurtengo ikasturtean 200 haur inguru aritu dira Dantza Eskolan. Ikasle gehienak neskak izan arren, mutilek ere izan dute presentzia. Kopuru osotik 23, mutikoak dira.

Dantza Eskolaren zuzendaritzaren helburuak, dantzaren arlo bakarra irakatsi ordez, dantza orokorrean hartu

eta haurren dantzarako zaletasuna handitzea da.

Honela, dantza klasekoak duen garrantzia ikusita, dantza eskolaren klaseetan ikasleek barra lantzen dute beste estilo guztientzako oinarri bezala. Klasikoaz gain, dantza modernoa, jazza, euskal dantza etab... lantzen dute klaseetan.

Dantza eskolak orain arte izan duen oztopo nagusinetarikoa, haurrak iharduera mota askotan apuntatuak egotearena da. Dantzak, beste edo-

zein iharduerak bezala, disziplina gogorra eta dedikazio handia eskatzen du, baina, dena den, emaitzak espero bezain onak izango diren esperantza dute arduradunek.

Bestalde, LOGSE legea indarrean sartu zenetik, dantzan hasteko urtea 8 urtekoa izan beharko da gutxienez. Gainera 6 eta 8 urte bitarteko haurrek musikako oinarrizko ikasketak jaso ditzaten gomen datzen da, dantzan hasi aurretik.

ITZALA *Edergintza*

- Aurrepegi tratamenduak
- Gorputz tratamenduak
- Masaia
- Sauna
- Solariuma

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PUB

LAJANET

elgoibar

Zer iritzi duzu mendian dabilzan motorzaleez?

Motorzaleen taldea, talde irekia da; beraz, mendiko gainontzeko erabiltzaileekin edonolako idarokizun edo laguntzara irekia.

Mendiko motoristen filosofia motorraren gozamenaz gain naturaren gozamenean datza, hau da, mendiko bide eta zidor berriak topatzean.

Zaletasun eta hobby guztiak bezala motorraren mundua izan daiteke kirol konpetitiboa, baina, kutsadura dela eta, zenbait sektore motorraren kontra jarri dira.

Ezjakintasunak pentsarazten du motorrek desabantailak besterik ez dituztela. Hori horrela ez dela kontura gaitezen, gogoan izan behar dugu suteak egon ziren garaia.

Motorrak han zeuden laguntzeko prest eta lagundu zuteneko kasuak egon badaude.

Zeren eta motorra oso garraibide azkarrak da eta beste garraibide motak ailegatzen ez diren tokietara ailega daitzeko.

Batzuek pentsatzen dutenaren aurka, kutsadurari dagokionean, ez dago horrenbesteko arazorik. Motor batek, astean behin edo bitan men-

dira irteten denean, sortzen duen kutsadura portzentaia oso kaxkarra da; horrezaz gain, erabiltzen diren olioak biodegradableak dira, hau da, ez dute kutsatzen.

Motorrek egiten duten kutsadura, herrian ibiltzen diren kotxeekin, baita mendian ibiltzen diren "Volvo", arrastradore eta kamioiekin alderatuz ere, erraz konturatu gaitezke oso txikia dela.

Mendia puskatze kontuan, berriz, motorrek egin dezaketen kaltea ez da ezer, lehenago aipatutakoarekin konparatuz. Gainera, motorrean ibiltzen den jendeak mendia ezagutzen duenez, beraz errespetatzen du eta mendian ibiltzen den jendea ere bai. Azken batean, tolerantzia elkarbizitzaren amaibaita.

Jon Leiaristi



Honako idatzi honekin ez noa kirol errespetagarri honen aurka, ezta gutxiagorik ere, denok bait daukagu bizitzak ematen dizkigun baliabideez gozatzeko eskubidea. Hori bai, beti ere besteak errespetatuz.

Hala ere, hamaikaxo aldiz tokatu zait, eguneroko stress eta kutsaduratik ihesi, pake eta lasaitasun bila mendira joan izana, eta tontorrean, naturarekin kontaktuan nagoela ditzosozko motor horien zarata beldurgarria eta keusaia (edo hatsa) nire belarri eta zurtziloetan barrura sartzea. Behekaldean gutxi balego bezala, goiko tontorretara ere eramaten dute zikinkeria.

Izan ere, mendian motorrak dabilzan bitartean, ezer gutxi balio du lasaitasunak, txori kantuak eta belar usai freskoak. Dena zarata, hatsa eta urduritasun bihurtzen da.

Mendia guztiona da, noski, (moto-gidariarena ere bai!), baina, hots, ingurugiro natural batean elementu arrotz eta kutsagarri baten presentzia zilegi al da? Ez,

noski. Gatazkaren gakoa errespetuan datza. Moto-gidariekin mendizale eta naturari zor diena eta, orohar, jende eta erakundeekin kirol honi zor dietena.

Ez diot inongo meriturik kendu nahi kirol honi, nik neuk ere disfruta bait dezaket trialzale askoren abilezia eta espektakularitateaz. Kezkatzan nauena zera da, sarritan honen praktika-eremua lekuz kanpokoa eta desegokia dela, alegia. Norbere eskubideen mugan dago mamia. Beraz, gatazkari soluziobide bakarra ikusten diot, eta zera proposatuko nuke: praktika-eremua mugatzea, hau da, horretarako apropos prestaturiko lur sail edo instalakuntzak sortzea eta mantentzea, mendien ederra pakean utziz.

Abel Irizar

ETA ZURE USTEZ?

Zer iritzi duzu mendian dabiltzan motorzaleez?



Ismene Fulgencio
22 urte, ikaslea

Mendira juten zera lasai egotera eta motoristak ikustea amorrua ematen dit. Zaratagatik, batez ere, eta oreka apurtzen dutelako.



Marisol Perez
38 urte, administraria

Niri ez zait ardura eta ez dit molestutzen. Baserrian bizi denak kexa izatea normala da, zaratagatik. Baina ez da nire kasua.



Maria Pilar Laconcha
48 urte, irakaslea

Mendia oso zabala da eta denentzat tokia dago. Dena den, askotan molestatu egiten dute abiadura handian ibiltzen direlako.




Agustin Prado
38 urte, teknikoa

Gaizki iruditzen zait paisaia guztia apurtzen dudelako. Motorrekin zarata egiten dute eta gainera jendearen bizitza arriskuan egon daiteke.



Jesus Mari Marcos
28 urte, prentsista

Ni motorista naiz eta ez dut uste ezer apurtzen dugunik. Ni ez molestutzen saiatzen naiz baina, hala ere, zirkuito bat falta dela uste dut.



Benjamin Quintano
42 urte, pintorea

Motorra duena ibil dadila. Niri ez zait axola mendian ibiltzen badira. Kanean gehiago molestutzen dute, batez ere errepidetik gertu biziz gero.

PETUNIA
Modak
Errosario 12, tel: 74 16 48



Hau da zure publizitatearen
txokoa deitu 74 14 42

Eibarbus


- BIDAIA NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK
- ESKOLA ETA ENPRESETARA JOAN ETORRIAK
- TXANGOAK, ETAB.

Isasi, 20 behea
Tel: 70 16 20 - 11 17 33
Fax: 70 16 20 **EIBAR**

NAVA

Inpresoreak
Inpresoreak
Inpresoreak
Inpresoreak
Inpresoreak

Sta. Ana, 44
Tel 74 44 51



Gazte txartela

1993-95 urteetarako Gazte Txartela egin dezakete dagoeneko 15 urtetik gorako neska-mutilek. Gazte Txartela bai Kultur Etxean, bai Institutu ezberdinetan eskura daiteke.

IX. Deba Beheko Eskolarteko Antzerki Ihardunaldiak

Aste honetan hasi da Eibarren burutzen ari den IX. Deba Beheko Eskolarteko Antzerki Erakusketa. Egoitza Zentroak eta "Narruzko Zezen" taldeak antolatutako antzerki erakusketan, 22 antzerki lan ezberdin taularatuko dira.

Emanaldi guztiak Eibarren izango dira, maiatzaren 27ko emanaldia ezik. Azken hau Elgoibarren izango da.

Antzerki erakusketan, antzerki talde ezagunetz gain, Eibar, Ermua, Mutriku eta Elgoibarko O.H.O. eta ikasketa ertainetako ikasleek prestatutako antzeslanak ikusi ahal izango dira.

Elgoibartarrek bi antzeslan taularatuko dituzte. Bata, "Printze Urdina" izenekoa, Ikastolako Antzerki Tailerrak egindakoa eta bestea, "Lorategi Urperatua", Elgoibarko *Hostaia* taldeak antzestutakoa. Lan hau estreinekoz antzestuko dute *Hostaia* taldekoek.

Komertzio haundi eta txikiei buruzko hitzaldia

Elgoibarko E.L.H.I.ko Ikasle Ohien Elkarteak komertzio handi eta txikiei buruzko hitzaldia antolatu du datorren astearterako, hilak 18. Hitzaldian, Iñigo Zabaleta, Gipuzkoako Bazkundeko Barne Merkataritzako arduradunak hitz egingo du Kultur Etxean arratsaldeko 20,00etan. Hitzaldia merkatariei eta interesaturik dagoen edonori zuzendua dago.

Danobatek 2.000 milioitako aurreakordioa sinatu du txinar enpresa batekin

Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) eta txinar agintariek pasa den asteartean sinatutako aurreakordioaren arabera, korporazioaren baitan dagoen Danobatek, 2.300 milioitako balioa duten 16 makina fabrikatuko ditu txinar enpresa batentzat. Makina hauek, "rectificadoras especiales" deritzen moetaoak dira eta *Suzuki*

kotxeentzako hiru pieza egingo dituzte: blokeak, kulatak eta ziguenal. Makinak Pekin-eko hegoaldean dagoen *Sichuan* hiriko *Jiangling* enpresarako dira. Enpresa honek beste 146rekin batera, 800.000 langile biltzen dituen, *Grupo Norinco* (Txina iparraldeko industria Korporazioa) osatzen du.



Informazioa eta elkarlana, droga prebentziorako lehen pausua

Pasa den astean, SIADECOK Elgoibarko droga egoerari buruz egindako azterketaz eztabaidatzeko mahaingurua antolatu zuen Errota-txok. Bertan, anbulategiko kide batek, Udaleko Ongizate eta Kultura saileko teknikariek, Alkoholiko Anonimo elkarteak kide batek, irakasle batek eta Errotatxoko ordezkari batek hartu zuten parte. Mahakideek, gaztetxoaren arteko alkohol kontsumo izugarria azpimarratu zuten eta beraz, horri alternatiba edo soluziobide bat topatu beharra. Droga eta sexuari

buruz gazteek duten heziketa eta informazio falta salatu zuten eta txikitatik behar bezala informatu beharra adierazi zuten.

Entzuten zeuden Udaletxeko eta Gazte Asanbladako ordezkarien artean, eztabaidak eztabaidatzen egin zuen Gaztetxea zela eta. Gertakaria adibidetzat hartuta, Errotatxoko kideak, Udala eta herriko gazte eta elkarten arteko inkomunikazioa hausteko garaia dela adierazi zuten eta, elkarlanean oinarritutako plan bat eraikitzeke beharra azaldu.

Irrati libreen lana funtsezkoa izan da euskal musika talde berrientzat



Zazpiki irratiak "Komunikabideak eta musika" izenburupean antolatutako mahainguruan *Ehun Kilo* taldeko Jon Zabala, *Egin* irratiako Salda, eta *Negu Gorriak* taldeko Fermín Muguruzak hartu zuten parte. Iñaki Zarata, "Devorame"ko kidea, mahainguruan parte hartzeko hitza emanda bazuen ere, ez zen bertara agertu. Mahakideek, egunkariaren aldetik, musikari buruzko gehigarri gutxi daudela azpimarratu zuten. Bertoko kritikoez hemengo taldeei buruz informazio ugaria eta kritika onak eskaintzen dizkietela azaldu zuten. Halaber, musika taldeek, eza-

gutzero emateko, komunikabideen beharra dutela eta elkarren arteko lotura oso sendoa dela adierazi zuten.

Euskal Herriko talde gehienentzat funtsezkoa izan da Irrati libreek egin izan duten hedapen lana, beraiek izan baitziren, hasieran behintzat, taldeen maketak jaso zituzten bakarrak. Gaur egun, ordea, *Egin* irratiak eta Euskadi Gazteak badute talde berriei eskainitako saiorik.

Bestalde, irizpide politikoen eraginez, euskaraz abesten duten taldeen marjinazioa salatu zuten.

Euskara praktikak euskal familietan

Euskalduntze prozesuan ari direnek euskara praktikatu ahal izan dezaten, eta azken urteotako plangintzaren ildo beretik jarraituz, "Egonaldiak Familia Euskalduntan" kanpaina antolatu du Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak.

18 eta 35 urte bitarteko adinekoek har dezakete parte uztailetik irailera bitartean gauzatuko den plangintzan. Egonaldiaren prezioa, 20.000 pezetakoa izango da. Langabezian daudenei beherapenak egingo zaizkie.

Egonaldi hauetara joan nahi duen guztiak inskripzio agiria bidali beharko du Jaurlearitzako Kultura Sailera maiatzaren 28a baino lehen. Izena emateko agiriak Udaleko Euskara Zerbitzuan eskura daitezke (Nafarroa Enparantza 3, tel: 74 43 66).

Ibilaldia-ra autobusak

Aurten ere Elgoibarko Izarra Elkartek, Elgoibarko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzaz, autobusak antolatu ditu maiatzaren 23an Ondarrun izango den Ibilaldira joateko. Izena emateko azken eguna maiatzaren 21a izango da eta autobusaren prezioa 800 pezetakoa izango da.



ALDIZKARIA
ETXEAN JASO
NAHI BADUZU,
DEITU 74 16 26
TELEFONORA

Odola emateko deia

Maiatzak 14 eta 28an Gipuzkoako Odol Bankuko kideak Elgoibarko Odol Emaileen Egoitzan izango dira, odola eman nahi duten guztiei odola ateratzeko.

Ateraldiak arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara izango dira.

Bazkari herrikoiak

Morkaiko Mendizale Elkarteak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, "Lurra eta Hizkuntza-ren Eguna"ren egitasmoaren baitan, bi bazkari antolatu dituzte maiatzaren 30erako. Bata, nagusientzat izango da San Pedroko jatetxean (2.000 pta) eta bestea, haurrentzat, San Pedroko pilotalekuaren inguruan (doan). Bazkari-ra joan nahi dutenek, izena bi elkarte hauetariko batean eman beharko dute maiatzaren 27a baino lehen.

Entzun magazinearen 6. alea kalean

Entzun "Elgoibarko magazine independentea"ren 6. zenbakia, kalean da dagoeneko. Ale berezi honetan Gaztetxearen gaia monografikoki tratatzen da. Dohainik banatzen den magazine honek poster bat dakar barnean eta, ohi denez, jendeak bidalitako kolaborazioz eginga dago.

Euskararen normalizazioari ekiteko baldintza egokiak

Larogei bat lagun azaldu ziren Elgoibarko Izarrak antolatutako Hitzaldi-Ikastaroko lehenengo saiora. Bertan aztertu zen gaia Elgoibarko egungo egoera sozio-linguistikoa izan zen. Elkarteko kideen esanetan, "egoera nahi bezain ona ez bada ere, baldintza minimo batzuk ematen dira Elgoibarren euskararen normalizazio prozesua martxan jartzeko. Baldintza hauen artean Elgoibar-ko ikastetxeak, irakasle eta gurasoak hartzen ari diren jarrera

positiboa, Udaletxean alderdi politiko abertzaleen gehiengo, herriko elkarteetan euskarak duen eta euskaldunek duten pisu espezifikoa eta herritarren artean dagoen bizinahia eta euskararekiko konpromezu potentziala daude".

Baldintza hauek aprobetxatu eta lan positiboari ekinez gero, Elgoibarko herriak garai hobek ezagutuko dituela ziur daude Elgoibarko Izarrako kideak.



Hona hemen Sallobente auzoak jasan duen itxuraldaketa.

Uholdeplanen barruan San Lorenzo auzoa txukuntzeko lanetan dihardute eta tartean, zakarrontziak, eserlekuak eta arbolak jarri dituzte. Plazako zolua ere berdindu egin dute eta erreka bazterrean eskollera antzeko bat eraiki dute.



KENSINGTON



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE



Adi!

- Udarako ikastaro trinkoetarako eta datorren urterako matrikulazio epeak zabalik daude.
- Enpresetan ere klaseak ematen ditugu.

Colaborating Authorised P.E.T. centre ES 406 (Cambridge University) eta University of London centre



KENSINGTONek BIRENTZAT AFARIA OPARITZEN DIZU

INGELESARI BURUZ DUZUEN IRITZIA JAKIN NAHI GENUKE.
BETE ONDORENGO INKESTA HAU ETA EKARRI KENSINGTON-ERA.

ERANTZUTEN DUZUENON ARTEAN **BIRENTZAT AFARI BAT** ZOZKETATUKO DUGU **MAIATZAK 28AN**.

- Zergatik pasatuko zenuke uda Inglateran?
 - Charles eta Lady Di ezagutzeko
 - Aterki berria estrenatzeko
 - Ingelesa ikasteko
 - Zertara joan hara?
- Zein da ingelesaren deskribapen zehatzena:
 - Edukatuegia
 - Apasionatua
 - Hotza
 - Beste ezaugarririk.....
- Zure ustez ingeles hizkuntzada.
 - Uhhh!!
 - Atsegina
 - Garestita
 - No comment
- Txantxak alde batera utzita (erantzun dagokizuna)

Zergatik ari zara ingelesa ikasten?.....

.....

Zergatik ez duzu ingelesik ikasten?.....

.....

IZEN-ABIZENAK.....HELBIDEA.....
TELEFONOA.....

"Lehenengo urteak gogorak baina politxak izan ziren"

1962ko maiatzaren 2a ez du sekula ahaztuko Itziar Ajuriak. Udaberriko goiz hartan, bera eta 29 ume koxkor San Frantzisko kaleko lokal batean elkartu eta Elgoibarko Ikastolako lehenengo

gela osatu zuten. 24 urte beranduago, 1986an, Itziarrek bere azkenengo klasea eman zuen. Urte guzti horietan Ikastolak izan zituen gorabeherak, inork baino hobeto ezagutzen ditu Itziarrek.

- Nolakoak izan ziren Ikastolaren lehenengo urteak?

-Oso gogorak, latzak. Orduan Ikastolak ez ziren legalak, etzaukaten ofizialtasunik eta ia beti klandestinitatean ibili behar izaten ginen. Nik neuk ere ez naukan titulu ofizialik. Erakundeetatik ez genuen dirurik jasotzen eta laguntza guztia herriak ematen zigun. Ikastola itxiko ote ziguten beldur egoten ginen beti.

- Euskaraz irakastea ez zen gauza erraza izango orduan?

- Ez horixe. Irakasle oso gutxi geunden; hasieran ni bakarrik. Baina behar bada zailtasun handiena material falta zen. Ez geneukan ez libururik, ez bestelako materialik ere. Tiza eta arbela bakarrik. Gerora lehenengo libururak azaldu ziren, "Xabiartxo" eta "Martin Txilibitu" esaterako.

- Lokal aldetik ere izan zenituzten arazoak, ezta?

- Bai. Lehenengo Ikastola San Frantzisko kalean euki gendun, "Lorito" inguruan. Gero ikasle kopurua gora zihoala ikusirik-beste lokal batzuk prestatu behar izan genituen, hori bai, zailtasun



"Denekin ondo konpontzen nintzen. Bai irakasleekin eta bai ikasleekin ere."

asko gainditu ondoren.

- Ikastola martxan hasi zenean nolakoa izan zen herriko jendearen jarraera?

- Orokorrean oso ona. Euskararen alde zerbait egiteko gogoa zegoen herrian. Laguntasun handia jaso gendun. Kontutan hartu behar da Elgoibarko Ikastola Euskal Herriko lehenengoetarikoa izan zela. Gure aurretik Donostian eta Hernanin bakarrik zeuden Ikastolak.

- Beti maila berean

eman zenituen klaseak?

- Edade ezberdineko umei eman nien eskola. Baina gehien lehenengo eta bigarren mailan aritu nintzen, 6 eta 7 urteko hurrekin.

- Nolakoa da irakasle lana?

- Nik beti gustora lan egin nuen, lehenengo egunetik jubilatuta nintzen arte. Askok gustatzen zait irakasle lanbidea. Gainera 6 eta 7 urteko hurrekin ondo moldatzen nintzen. Edade politxa da.

- Ba al dakizu zenbat haurri eman diozun eskola?

- Sekula ez dut kalkulurik atara. Baina bueno, pentsa dezagun... Batz bestea 28 ume izaten nituen urtero nere kargu. 28 bider... 670 ume inguru.

- Ikastola berriak zer suposatu zuen?

- Aurrerapauso oso garrantzitsua izan zen. Ordurarte oso sakabanatuta zegoen Ikastola. Gela batzuk Ubitarten zeuden, beste batzuk Plaza Handian, Maalan... Horrela ezin zen jarraitu. Ikasle kopurua urtetik urtera gora zihoan eta Ikastola berri eta egokiago bat behar beharrezkoa zen.

-24 urte egin zenituen Ikastolan. Oroitzapen asko izango dituzu...

- Hasierako urteak gogorak izan ziren, baina baita politxenak ere. Oroitzapen onenak orduangoak dira. Ikastolaren inguruan mugitzen ginenon arteko giroa oso ederra zen. Baina neretzat inportanteena da denekin ondo konpontzen nintzela, bai nere lagun irakasleekin eta bai ikasleekin ere. Hau oso pozgarria da neretzat.

Aitor Zabaleta

Kepa Mendikute *Bertsolaria*



-Nondik datorkizu bertso zaletasuna? - Familiakoa da, herentzia edo horrelako zerbaitegatik dator-kidala pentsatzen dut.

- Zenbat urte bertso eskolan?

- Lau.

- Bertsolaria jaio ala egin egiten da? - Jaio.

- Koplak ala bertsoak? - Bertsoak.

- Zein neurri da egokiena zuretzat? - Zortziko handia.

- Bertso paperak ala bapatekoak? - Bapatekoak.

- Zer egiten duzu asteburuetan? - Bertso eskolara joan, etxean bertsoak egin... lagunekin irten, kalean ibili...

- Erreala ala athletic-a? - Erreala.

- Zer dela eta uste duzu bizi dugula bertsozaletasunaren igoera hau? - Hizkuntza ere goraka doalako. Orain moda bat ere bada...

- Nork irabaziko du aurtengo bertso txapelketa? -Guk!! (Eskola arteko Bertso Txapelketa).

- Bertso munduan zein da zure helburua? - Bertsolari on bat izatera heltzea.

- Zer ikasgai duzu gustokoen? - Gimnasia.

- Udarako zer plan daukazu? - Mutriku aldera joango naiz, gero Santo Domingo aldera egun batzuk pasatzera.

- Bidaia bat egitekotan, nora?- Grezia aldera.

- Zein da zure bertsolari gustokoena? - Peña. Oso majoa da eta ondo jausten jat.

- "Dragoi Bola" ala "Sensación de vivir"? -"Dragoi Bola"... bueno ez, "Sensación de vivir".

-Komikiak ala Bideo jokuak? - Bideo jokuak.

- Nori edo zeri botako zenioke bertso bat? - Ez dakit... Bertso eskolakoei.

- Zer esango zenieke elgoibartarrei bertso eskolan parte hartzeko anima daitezen? - Oso ondo dagoela eta ez bazaie asko gustatzen ere, probatzeko.

Agur Miren Barandiaran

BERTSOTAN

MENDIA NORENTZAT?

Mendira joanda ez da gozoa txori kantua ez dena moto kamioi motoserra ta eskopetaren sirena.

Bidean pizti aztarnan ordeztu kartutxo ta gurpilena nik behintzat oinez nahi dut topatu gozamenik handiena.

Kontua halere ez da bakarrik mendia edo natura maite ditugu, jolas arrisku sexu eta abentura.

Motozaleen grina azkenik mendietara heldu da denak ez gara berdinak eta zer egingo diogu ba.

Asier Etxaniz

Garbiñe Edergintza



- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak
- Depilazio elektriko eta hotzean.
- Solariuma

P.M. Urruzuno 27. Tel: 74 31 32

GARAY



HARATEGIA
URDAITEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

BARREN
etxean jaso nahi
baduzu deitu
74 16 26
telefonora

Nesken eskubaloi ekipoa osatzeko deia

Datorren 93-94 denboraldian eskubaloian jokatzeko nesken ekipoa bat atera nahi dute Elgoibarren. Ekipoa senior mailakoa izango da, hau da, 18 urtetik gorakoentzat. Eskubaloian hasteko gogoia duten guztiak, beraz, ager daitezela datorren maiatzaren 15ean, larunbata, polikiroldegian eguerdiko 12etan egingo den bilerara.

Elgoibarko Lagun Taldea

Pasa den astebukaeran bi lasterketa korritu zituzten bigarren urteko kadeteen kategoriako Lagun Taldeko txirrindulariek. Usurbilgo "San Isidro" txapelketan *Zaer Motor* taldeko Igor Dieguez izan zen helmugara iritsi zen lehen elgoibartarra. Larunbatean, Pedro Cerviño elgoibartarrak, *Muebles Olatz* taldekoak, 3. postua egin zuen "VIII. Premio Tolosano" lasterketan.

Tenis Txapelketa

Larunbat honetan, hilak 15, hasiko den Joku Eskolarretako Tennis Txapelketan OHOKo 5,6,7 eta 8. mailtako 122 ikaslek hartuko du parte. Udak Kirol zerbitzuak antolatutako txapelketa arratsaldeko 15,00etan izango da, udal tenis pistan.

Tennis Txapelketa, joku eskolarren barruan jokatu den lehen aldia izango da honako hau.



Jaime Martinez:

"Lurrazpia beste mundu bat da"

- **Noiz hasi zinen espeleologia egiten?** - Duela 9 urte, 1984ean. Mendaroko "Leizarpe" espeleologia taldeko partaide bat ezagutu nuen eta bera eta beste lagun batzuekin batera hasi nintzen inguruko haitzuloetan sartzen.

- **Mendaroko Kobazuloetan ibiltzen al zarete beti?** - Gehienetan bai. Mendaron eta Izarraitzko mendietan haitzulo asko dago, gure datuen arabera 240 inguru. Urrutira joan gabe espeleologia egiteko aukera oso ona daukagu. Gainera neurri eta itxura guztieta-ko haitzuloak aurkitu daitezke, haundiak, txikiak, errazak, zailak...

- **Zein da inguruko kobazulorik haundiena?** - Bereizketa bat egin beharra dago. Alde batetik haitzuloak daude, eta bestetik sima edo kobazulo bertikalak. Haitzulo handiena "Ermitia" da. Deban dago eta oraingoz 8 bat kilometro deskubritu dira. Itziarko beste koba batekin elkartzen dela uste dugu. Sima handiena, berriz, "Aitzondo" da, Madarixako putzuaren ondoan dago eta ia 500 metroko sakonera dauka.

- **Espeleologia egitea arriskutsua al da?**

- Arriskutsua izan daiteke, prestaketa egokirik gabe egiten bada. Materiale eta preparazio ona euki



ezkero ez dago arriskurik. Erabiltzen den teknika oso segurua da.

- **Edozeinek egin dezake espeleologia?** - Bai, dudarik gabe. Baina hasieran beharrezkoa da dakien norbaitekin ibiltzea. Ikasteko modu onena da.

- **Nolako kirola da espeleologia?**

- Oso gogorra, baina baita erakargarria ere. Lurrazpia beste mundu bat da. Han lokatza, hezetasuna, iluntasuna eta isiltasuna dira nagusi. Badirudi denbora ez dela pasatzen, lasaitasun handia dago. Esploratu gabeko mundua da eta horregatik da interesgarria nerezat. Gainera, oso kirol kompletoa da, gorputz guztia egoten da funtzionatzen.

Aitor Zabaleta

● **Adina:** 25

● **Espeleologia ala mendia?**

Biak. Espeleologia egiteko mendira joan behar da.

● **Espeleologia, kirola ala abentura?**

Kirola, abentura eta zientzia.

● **Kobazulorik politena?** Gausitxako sima. Mendaron dago.

oizmendi
Tel: 74 00 16
TABERNA

Eskulanean saiatzen gara
Murusmendiaran
ELGOIBAR
GOZOTEGIA
San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak

magu's
ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA®
San Roke 6 behea tel. 74 34 91

Agur Leruni eta ongi etorria Mintxetari

Larunbat honetan, ligako azken partidua jokatuko du Lerungo futbol zelaian C.D. Elgoibarko *Haundik*. Lerunek agur esango dio horrela bere zelaian hainbat partidu jokatu dituen taldeari. Dena den, oraindik, bere horretan jarraituko du Leruneko zelaiak eta beste kategorietako futbol partidu eta entrenamenduetarako erabiliko da.



EL DIARIO VASCO

Larunbatean jokatuko *Haundik* azken aldiz Lerungo zelaian.

C.D. Elgoibarrek Beasainen aurka jokatuko du azken partidua Lerunen. Honela, Lerungo futbol zelaiarekin batera talde txurigorriaren historiaren pasarte bat bukatuko da, eta datorren denboraldia Mintxetako instalakuntzen estreinuarekin hasiko du futbol taldeak. Lerunen, hainbat garaipen lortu ditu C.D. Elgoibarrek eta azken partidua irabaztea, Leruni eskaini dakiokkeen omenaldirik onena izango litzateke.

1925. urtean inauguratu zen zelaiak, Mintxetako kirol instalakuntza modernoei emango die errelebua. Lerungo belar naturaleko

zelaiaren ordez, Mintxetako belar artifizialeko zelaiak jokatuko du *Haundik*. Epe baten buruan, Lerun poligono industrial bihurtuko da.

Mintxetako inaugurazio eguna zehaztu gabe egon arren, C.D. Elgoibarren 75. urtemugaren ospakizunekin batera izango da. Ospakizunen artean, C.D. Elgoibar elkarteak, Euskal derby garrantzitsua antolatzeko asmotan dabil. Partidu hori, Mintxetako inaugurazio egunean jokatuko litzateke.

Mintxetako lanak

Orain arte, Mintxetako lanak, aurretik ezarritako epearen barruan burutzen ari dira. Pasa den astean,

futbol zelaiko belarraren azpiko egitura amortigutzailea jartzeari ekin zioten eta hilaren bukaerarako belarra ere prest egongo da. Uztailean lan guztiak bukatzeko epea beteko da baina harmaila estalien proiektua aldatu egin zenez, agian zertxobait atzeratuko da bukaera data. Izan ere, harmailak alturaz jasotzea erabaki zen, haren azpiko espazioa lokalak egiteko erabiliko delarik. Horrela, 94 metro karratu, biltegi orokorrerako izango dira. Gimnasioak 130 metro karratu izango ditu eta C.D. Elgoibarri 100 inguru metro karratu emango zaizkio. Gainon-

tzeko espazioa, beharren arabera antolatuko da.

Bestalde, kafetegiko zerbitzuaz arduratuko den pertsona edo enpresa, lehiaketa bidez aukeratuko da. Deialdia, hilaren bukaeran kaleratzeko asmoa du Udalak. Kafetegia hartzen dutenek, garbitasunaz, instalakuntzaren mantenuaz, eta argi eta uraren gestioaz arduratu beharko dira. Mintxetako instalakuntzaren zuzendaritza eta gestio orokorra, berriz, Udako Kirol Zerbitzuaren esku geratuko da. Kirol Teknikariaren laguntzaile lanetarako, pertsona bat kontratatzeke asmoa du Udalak.



Erakusketa zuzenbide berri honetan:

Santa Ana 3
Tel. 74 36 34

- "Rotura de Puente Termico" dun leihoak edozein koloretan.
- Bainu manparak
- Ofizinak banatzeko manparak
- Aluminio eta PVCzko pertsianak

Hiru kirol elkarte berri sortu dira azken urteotan

SIADECOK argitaratutako kirol elkarkidetze eta partaidetzari buruzko datuak direla eta, Udal Kirol Zerbitzuak gazteen partaidetza datuak gaurkotu ditu. Horrela ba, Udal Kirol Zerbitzuak ez du uste, SIADECOn inkestan agertzen den bezala, herriko gazteen partaidetza hain eskasa denik. Elgoibarren 3.500 bazkidek izena emanda du herriko 14 kirol elkarte ezberdinetan. Hauetatik, 1.419 hogeita hamar urtetik beherakoak dira. Diru-laguntza kontuan, urtero, Udalak 13 milioi pezeta banatzen ditu klub ezberdinen artean eta beste herrietako diru-laguntzarekin konparatuz, Elgoibarkoa kopuru oso garrantzitsua da Udal Kirol Teknikariaren ustetan.

Hamalau elkarte hauetatik, hiru, 1990. urteaz geroztik sortutakoak dira: Urgazi triathloi taldea, Urbizi urazpiko taldea eta Motor Club, azken hau sortzeaz dagoena.

Joku eskolarretan, 3. maila eta 8. maila bitartean, ikasleen ia ehunetik ehunak parte hartzen du kirolen batean. Guztira, 10 kirol ezberdin egiteko aukera ematen zaie, hiru taldekako eta 7 banakako. O.H.Oko 3. mailatik B.B.B.ko 3. maila arte, 1000 pertsona inguruk egiten du kirola eta joku eskolarren antolakuntzan, herriko 8 elkarte edo klubek hartzen du parte.

Udara begira, 500 pertsonak jardun zuen iazko kanpainan, hauetatik %40a gazteak eta helduak zirelarik. Aurtengo udarako, adin guztientzako 14 kirol iharduera ezberdin eskainiko dira.


Polikiroldegiko igerilekuan arrainak bezala

“Urbizi”k antolatutako urazpiko edo buzeo ikastaroa bukatu berri da. Hamabost egunez, herriko 20 bat pertsonak, 17 eta 32 urte bitartekoak, buzeoaren esperientzia ezagutzeko aukera izan dute. Uretako betaurreko pareak, aletak eta arnasa hartzeko tuboak edo hodia, buzeatzaile batek behar duen oinarrizkoena da eta bere kostua ez da 5.000 pezetara helitzen. Ikastaroa burutzeko materiala, Urbizi elkarteak jarri du. Ikastaroan bi talde ibili dira, 10 pertsonaz osatuta bakoitza. Astelehentik ostiralera bitartean izan dira klaseak, polikiroldegiko igerilekurako sarrera bazkideentzako itxita gelditzen zeneko orduak aprobeztatuz.

Oinarrizko materialarekin, nor bere ahalmenen arabera, urazpian ahalik eta hobetoen moldatzen irakatsi zaie.

Buzeoa igerilekuan egiteak abantailak eta desabantailak ditu. Igerilekuan, ura bare eta garbi dago etengabe; itsasoan, ordea, itsaskorronteen eraginez, ura zikindu egiten da eta ezuste eta arrisku ugari sor daitezke. Dena den, udara begira, Getariako hondartzara irtenaldia egiteko asmoa dute igerilekuan ikasitakoa itsasoratu praktikan jartzeko.

Igerilekuaren tamaina murriztatik, taldeak ere mugatu egin dira eta ikasle bakoitzeko, Urbiziko kide bana begirale lanetan izan dute.



⇨ Igerileku ertzean, ur azpira sartzeko prest.



24 orduz zuekin

Arrate ☎ 212 (20.600) Eibar
☎ 12 01 61/73 Fax 12 01 73



XABIER
ILEAPAINDEGIA

Eskatu eguna eta ordua

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



MUXI kirolak

Aukera handia
kirolarien zerbitzuan

Antonio Arrillaga 14 behea
Tel. 74 01 80

ELGOIBARKO IEE/REM ETA LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA

LH II AUTOMOZIOA

- **Iraupena:** 3 ikasturte
- **Helburua:** Autoen Elektrizitate eta Mekanika Espezialitateak ikaslearen prestakuntza tekniko-praktikoa eta sektore barnean sortzen diren aldaketak aztertzeko gaitasuna hezitzea.
- **Irakaskuntza Berezia:** Automozio Mekanika, Automozio Elektrizitatea, "Inyección diesel" delakoa, Karrozeria eta Margolaritza, Almacenaren kudeaketa eta Tailerraren kudeaketa.



M3 ENPRESEN ADMINISTRAZIOA ETA GESTIOA



- **Iraupena:** urte 1
- **Sarrera:** REM, 2. zikloa, UBI, LH. II
- **Helburua:** 3. mailako Modulo honetan, Teknikari Espezialista titulua eskuratzen da eta lan munduan goi mailako teknikari baten mailan sar daiteke. Titulu honek Unibertsitate Eskoletara zuzeneko sarrera ematen du egindako espezialitatearen baitan.
- **Irakaskuntza Berezia:** Administrazio eta Gestio Prozesuak, Zuzenbidea, Informatika, Ekonomia, Matematika aplikatuak, Hizkuntzak eta Praktikak enpresetan.

M2 BARNE KOMERTZIOA

- **Iraupena:** urte 1
- **Sarrera:** REM, 1. zikloa, BBB2, LH. I
- **Helburua:** 2. mailako moduluetan barne komertzioan teknikari laguntzaile titulua eskuratzea. Lan munduan langile kualifikatu baten mailan sar daiteke.
- **Irakaskuntza Berezia:** Salmenta Teknikoa, Eskaparatismoa, Gestio eta Administrazioa, Salmenta psikologia eta Praktikak enpresetan.



Larunbat honetan, hilak 15, goizeko 10etatik 1etara, zabalik izango ditugu ateak gure hezkuntz sisteman interesaturik zaudeten guztiontzat. Zatozte!!

Numismatika eta Filatelia elkarteak

Elgoibarko Numismatika eta Filatelia elkarteak sortu baino lehen, Elgoibarko zaletuak Eibarko Arrate filatelia elkarteko bazkide ziren. 1980. urtean, Elgoibarko alkate zen Arrietak, filateliara zaletua hau ere, Eibarko Arratekoekin hitz egin eta Elgoibarren erakusketa egin zuten. Lehen pausua emanda, Elgoibarko filatelia zaletuen izenak bildu eta 40 batek elkarteak sortu zuten.



Aurtengo zigiluei buruzko eskolarteko marrazki erakusketa.

Lokala lortu ondoren astero biltzen hasi ziren eta lehendabiziko erakusketak egiten. Orain, ordea, gauzak lehen baino okerrago daude Filatelia elkartekoentzat. Musika Eskola sortu zenean, lokala bien artean erabiltzea onartu zuten eta gaur egun, astebukaeratan bakarrik dute beraientzat lokala oso osorik. Esan digutenez, edonor gertura daiteke lokalera edozein kontsulta egitera.

Txaponei dagokienez, badaude herrian bizpahiru txanpon bilduma egiten zaletuak direnak, baina elkarteak osatzen duten gehienak zigilu kolezionistak dira. Erakusketei dagokienez, filateliari buruzkoak egin dituzte ia

beti, eta bazkideek beraien zigilu bilduma propioa dute. Urtero bi erakusketa egiten dituzte: bata, Estatuko bilduma pribatuaren erakusketa, San Anton egunean egiten dutena eta bestea, zigiluei buruzko eskolarteko marrazki erakusketa.

Zigiluak biltzeko zale-tasunak badu arrazoi argi bat. Zigiluak biltzen dituenak, ez ditu zigiluak bakarrik gordetzen; harekin batera, eskutitza eta postetxean botatako mataselloa ere gordetzen da. Balio duena, dokumentua bera da. Beraiek dioten bezala, zigilu kolezionista onak, kulturalki aberastearren egiten du bilduma, ez ekonomikoki aberastearren.

Zigilu kolezionista batzuek esaten dute, zigiluak "zirkulatu" egin behar duela, hau da, postetxetik pasatu behar duela benetako balioa izan dezan. Beste batzuen ustetan, ordea, matasellorik gabekoak du baliorik handiena.

Zenbait zigilu urteen poderioz, birbalorizatu egiten dira. Zigiluak, serie murrizteko zigiluak izateagatik, edota zigilu serie handi bat zirkulaziotik baztertu izanagatik ere birbalorizaten dira. Filatelia katalogoan begiratu gero, 200.000 pezetatik gora balio dutenak aurki ditzakegu. Garestiena, hiru ale bakarreko Britainiar kolonia izandako herrialde batetako zigilua omen da. Bere

sasoian 3 txelinetako balioaz atera zen merkatura, eta egun, ordea, milioiak balio ditu. Dena den, ganorazko zigilu bilduma bat 200.000 pezetarekin egin daiteke. Bilduma on batek, berriz, 3 milioiko balioa izan dezake.

FITXA TEKNIKOA

Sorrera urtea: 1980
Presidentea:
 Fermin Zuriarrain
Bazkide kopurua: 102
Urteko kuota:
 Umeak 150 pta.
 Gazteak 300 pta.
 Nagusiak 600 pta.
Berezitasuna:
 Filatelia
Helbidea:
 Azoka Plaza 2.




ANCHUSTEGUI Sa

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
 Antonio Arrillaga, 6-8
 beheak
 83 Postakutxa
 Tel. 74 33 44 - 74 06 92
 Fax 74 37 11

Biltegia:
 Arregitorre, 10 - 14 beheak
 Tel. 74 20 38 - 74 23 71
 20870 - ELGOIBAR
 Gipuzkoa



**CRISTALERIA
 ELGOIBARRESA C. B.**

*Bidriera artistikoak
 Obra komertzialak
 Bainu manparak*

Urasandi 12 beheak
 Tel-Fax: 74 04 89

Hiru lurraldeetako Ikastolen bilera Elgoibarren

Astearte iluntzean, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako ordezkarien bilera egin zen Elgoibarko San Bartolome Ikastolan. Hiru lurraldeetako Ikastoletako lehendakari eta zuzendari guztiak bildu ziren bertan, partaidetza ehunetik ehunekoak izan zelarik. Euskal Herriko Ikastolek maiatzaren 25a baino lehen sare pribatuan geratu ala publikora pasako diren erabaki beharko dute. Asteartean, ikastolen negoziazio prozesua zertan dagoen jakiteko bildu ziren ikastoletako ordezkariak.

Azken urteotan, Ikastolen Federazioak Elgoibarren egin izan ditu bilera guztiak, gure herriaren kokapen geografiko egoikiatik.



AZKUE

Partaidetza handia izan zen astearteko bileran.

Herriko Antzokiaren azken zine emanaldia ekainaren lehen astekoa izango da



Herriko Antzokian ez, Plazan izango da zinea uztailetik aurrera.

Uda sasoiak datorrela eta, Herriko Antzokiko zine emanaldiak ekainaren lehen astean eten egingo dira. Azken zine saioa ekainaren lehen astebukaerakoa izango da eta larunbat, igande eta asteleheneko emanaldietan "Sommersby" filma ikusi ahal izango da. Pelikula honekin itxiko da zine denboraldia. Dena den, abuztua arte, Herriko Antzokia beste mota batetako emanaldietara zabalik egongo da, antzerkia, hitzaldiak...

Uztailean, berriz, Plaza handian, aire libreko zinea hasiko da. Uztaileko eta abuztuko astebukaeretan, gaez proiektatuko dira filmeak. Uda ondoren, irailean, Herriko Antzokian berregokitze lanak hasiko direnez, ez da zine emanaldirik izango obrek irauten duten artean.

P

E-F

Pinturas Elgoibar

Fermin

- Pinturak
- Enpapelatuak
- Gotelé
- Igeltsuzko dekorazioak
- Lurrak
- Pintura japoniarra, etab.

Urasandi z/g
(Anayak etxea)
Tel: 74 39 91

Lizzy Boutique

GAZTEENTZAKO MODA

Errosario, 25 - Telef. 74 23 02

15 Larunbata

17,00 FUTBOLA

Elgoibar-Beasain

Tokia: Lerungo futbol zelaia

Zazpikik zuzenean emango du
107.6an

19,30 ZINEA

"La muerte os sienta tan bien"

Zuzendaria: Robert Zemeckis

Aktoreak: Meryl Streep, Bruce
Willis eta Goldie Hawn

22,30 TRASPASOS KONPAINIA

"Sísifo" lanarekin

Tokia: Olaizaga Kiroldegia

Antolatzailea: Musika eta Dantza
fundazioa.

ZINEA

"La muerte os sienta tan bien"

Helen Sharp, gaztetako lagun
batekin obsesionatuta dago.

Lagun hau, Madeline Ashton,
aktorea da eta Heleni senargai
guztiak kentzen saiatzen da. Eta
bai lortu ere. Horrela, Madeline,
Helenen senargaiarekin ezkon-
tzen da. Hamalau urte pasa ondo-
ren, Madeline zimurrez beteta
dagoen bitartean, Helen guztiz
gaztetuta agertuko da.

ZINEA

16 Igandea

16,30 ZINEA

"La muerte os sienta tan bien"

19,30 ZINEA

"La muerte os sienta tan bien"

17 Astelehena

19,30 ZINEA

"La muerte os sienta tan bien"

18 Asteartea

9,00- 12,00 ZINEA

Ikasketa ertaineko ikasleentzat,
"Thelma y Louise"

Antolatzailea: Irudi biziak

Tokia: Herriko antzokia

20,00 HITZALDIA

Gaia: Komertzio handiak eta txi-
kiak

Hizlaria: Iñigo Zabaleta, Gipuz-
koako Bazkundeko Barne
Merkataritzako arduraduna

Tokia: Kultur Etxea

Antolatzailea: E.L.H.I.ko ikasle
ohien elkarte

20 Osteguna

20,00 DANTZA ESKOLAREN
JAIALDIA

Tokia: Herriko antzokia

20,30 EMAKUME TALDEAREN
ASANBLADA IREKIA

Tokia: Kultur Etxea

21 Ostirala

20,30 BERTSO JAIALDIA

Tokia: Herriko antzokia

Antolatzailea: Lanbide Heziketa
Instituruko ikasleak

DIA DAS LETRAS
GALEGAS

JAI EGITARUA

MAIATZAK 16 IGANDEA

10,00 Txafligu botatzea

10,30 Hildako bazkideen ome-
nezko Meza Parrokian, Tuna
Anduriñaren partaidetzarekin.

11,30 Manzanedako gaiteroen
jarduna. Ondoren, kalejira

12,00 Sukalde tresneriaren era-
kusketa

12,30 Manzanedako gaiten saioa

14,30 Anaiarteko bazkaria

16,00 Tuna Anduriñaren saioa eta
Manzanedako gaiteroen agurra

19,00 Jaien amaiera

Artegi LEHIAKETA

2. Galdera:

Elgoibarko hilerri edo kanposatuan dagoen arkupea, Olasoko San
Bartolome eliza zaharretik geratzen zaigun hondar bakarra da.

Ba al dakizu non zegoen kokaturik aipatutako Eliza?

Etxebizitzak

Etxebizitza salgai Pedro Muguruza Etorbidean, Maala inguruan.
Informazio gehiago nahi baduzu deitu 74 12 39 ra.

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora. Edurne eta Maitane.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari.**
Tel: 74 21 35-74 22 10

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Lana

Arte ederretako ikasleak (2. maila) GEOMETRIA irakasle bat behar du. Maila altua.
Carolina 74 44 51.

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean).
74 08 79 Julian edo Maria Jesus

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta.
Tel.: 19 92 46 (Juanra)

Tituludun irakasleak O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditu.
Alazne Tel.:74 28 53

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzeekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Organu HAMOND bat. 8 baxu, bi teklatu eta sekzio ritmikoduna. 50.000 pta.
Alberto: 74 14 94

Ingeniero industrialak matematika, fisika eta kimikako klaseak ematen ditu BUP, COU eta FP. Gaztelaniaz.
Tel.: 74 13 11. Javier

Paseoko bizikleta saltzen dut. "Peugeot" kanbioduna.
Prezio onean. Tel: 74 22 67 Myriam.

Bi bizikleta motoreta saltzen ditut. BMX modelokoak.
Tel: 74 05 35

18 belozidatedun mendiko bizikleta bat saltzen dut. Kanbio sinkronizatuak, adarrak, "calapies"ak eta beste osagarri batzuk.
Prezioa: 38.000 pta. Astebukaeratan 74 15 35


Delineante langabetuak orduka edo jornada osoan lan egingo luke.
Deitu 74 34 01 telefonora. Iñaki.

Txakurrak eramateko erremolke bat erosiko nuke.
74 28 64 (Bulego orduetan)

"Asolo Super-soft" (42zkb.) botak eta "Softex" txamarra saltzen dut. Prezioaz hitzegiteko,
Aritza 74 05 90.

Bizikleta bat saltzen dut. BH 12 "Kanbio"duna. Prezioa negoziatzeko.
Tel: 945-28 94 81 Deitu 8etatik aurrera.

Kontaktuak



Afari merkeak

- * Kazuelatxoak
- * Oilasko erreak (aurrez eskatu)

Urtebetetze gonbiteak

- * Txokolatea eta pastelak

Arratsaldea pasatzeko

- * Karta joko eta berbetarako giro aparta

Aurrez enkargatu ezkeru, hobe!

Tel: 74 25 95





“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR